



## HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIAREN 2018KO EKAINAREN 1EKO EBAZPENA, 2018/2019KO IKASTURTERAKO ORDAINDU GABEKO IKASKETA LIZENTZIAK ARAUTZEN DITUENA.

Uztailaren 6ko 185/2010 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko funtzionario irakasle publikoen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa onartzen duenak, xedatutakoaren arabera, ari diren funtzioekin edo lanpostuarekin lotura zuzena ez duten arloei buruz ikasketak egiteko baimenak eman ditzake, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzaren bidez, Hezkuntza Sailak.

Halaber, 2004ko abenduaren 19an izenpetu zen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpeko lan-legepeko irakaskuntza- eta hezkuntza-pertsonalarentzako hitzarmen kolektiboak 31. artikuluan xedatutakoaren arabera, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzak eman dezake ikasketak edota praktikak egiteko baimena, ikasturte batean,- aldi hori ezin da luzatu,- ordainsariei espresuki uko eginda.

Azkenik, 2003ko azaroaren 21ean izenpetu zen Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpeko Erlijioeko lan-legepeko pertsonalarentzako hitzarmen kolektiboak 27. artikuluan xedatutakoaren arabera, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzak eman ditzake lanpostuaren funtzioei zuzenean lotuta ez dauden arloei buruz ikasketak egiteko baimenak.

Prozedura hau ordenatzeko asmoz, eskaerak aurkezteko epe bat ezartzen da, eskaera horiek ebazteko prozesua eta ikasturtearen hasieran pertsonalaren kudeaketari eragiten dioten gainontzeko prozedurak bateragarri egin ahal izateko.

Arlo horiek arautzeko orduan eta pertsonala ikasketa-baimenaren egoeran dagoen aldiak kotizazioei dagokienez, pertsonal funtzionarioa Gizarte Segurantzako erregimen orokorrean dagoen edo MUFACERi eta Eskubide Pasiboei kotizatzen dien hartu behar da kontuan.

Lehen egoeraren kasuan, abenduaren 22ko 2064/1995 errege dekretuak, Gizarte Segurantzaren beste eskubide batzuk kotizatu eta likidatzeari buruzko araudi orokorra onartzen duenak, xedatzen duenaren arabera jokatu beharko da; izan ere, errege dekretu horrek kotizatze eginbeharraren iraupenari buruzko 13. artikuluan 1992ko urriaren 27ko agindura jotzeko esaten digu (1992ko azaroaren 5eko BOE). Agindu horren bidez argibideak ematen dira, soldatarik gabeko baimen- edo lizentzia-egoeretan erregimen horren aplikazio-eremuan dauden funtzionario publikoek Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrari kotizatzeari buruz eta 2. artikuluan hau xedatzen du: *"funtzionarioak soldatarik gabeko baimen bat duen aldiak, alta ematen eta kotizatzen jarraitu beharko du ordainsariak ematen dizkion organismo publikoak. Kontingentzia arruntan ondoriozko kuota patronalarengatik kotizatuko du bakarrik Administrazioak eta kotizazioaren oinarria zerbitzuak ematen jarraitu izan balu zegokiokeena izango da"*.

Funtzionarioa MUFACEko erregimenean badago, martxoaren 28ko 375/2003 errege dekretuak, Administrazio Mutualismoaren araudi orokorra onartzen duenak, xedatzen duenaren arabera jokatu beharko du Administrazioak. Errege dekretu horrek 23. artikuluan xedatzen duenez, *"altan, MUFACERen aplikazio-eremuan eta administrazio-egoera hauetakoren batean dauden mutualistek derrigorrean kotizatu beharko diote administrazio-mutualismoaren erregimenari: a) zerbitzu aktiboa; lizentziak hartzea egoera honetan sartzen da"*.

Horren arabera, eta apirilaren 11ko 79/2017 dekretuak, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituenak, 10.k.6) artikuluan xedatutakoaren arabera,



## EBAZTEN DUT:

### **Lehena.- Deialdiaren helburua.**

Ikasketa ofizialak edo ikerketa-proiektuak egiteko ordaindu gabeko ikasketa-lizentziak deitzea. Lizentzia horiek emateko, hezkuntza-planifikazioari, eskatzaileak ematen dituen espezialitateei, dagoen kidegoari eta egin nahi dituen ikasketen edukiari lotutako faktoreak hartuko dira kontuan.

### **Bigarrena.- Baimenaren ezaugarriak.**

Baimen honen ezaugarri nagusiak hauek dira:

- Ikasturte oso bateko iraupena du.
- Ez du ordainsaririk.

### **Hirugarrena.- Deialdian parte hartzeko exijitutako baldintzak.**

1.-Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza publikoko karrerako funtzionarioa edo lan-legepeko pertsonal finkoa edo behin-behinekoa izatea.

2.-Eskatzaileak ordainsariei espresuki uko egitea.

3.-Ikasketa ofizialak egiteko lizentzia eskatzea, gutxienez 30 ECTS kreditu izango dituen prestakuntza arautuko titulu bat lortzeko edo ikerketa-proiektu bat egiteko, ofizialki ezagututa dagoen eta haren estatutuetan ikerketa helburuen artean duen unibertsitate edo instituzio baten programaren barruan.

### **Laugarrena.- Eskaerak formalizatzea eta aurkezteko epea.**

1.-Hezkuntza Sailaren web orrian argitara emandako eredu ofizialean egin behar dira eskaerak. Eskaerarekin batera egin nahi diren ikasketen proiektua eta ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko dira:

- a) Ikasketa ofizialak egiteko: ikasketa horietan aurre matrikulatu edo matrikulatu izana justifikatzeko agiria.
- b) Ikerketa-proiektu bat egiteko: lizentzia eskatzea eragin duen proiektua egiten den unibertsitatearen edo erakundearen ziurtagiria. Ziurtagiri horrek iraupena, egin beharreko proiektua, ... agertu beharko ditu.

2.-Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzetan aurkeztu ahal izango dira eskaerak eta Langileak Kudeatzeko zuzendariarentzat izango dira.

3.-2018ko ekainaren 4tik 11ra artekoa, biak barne, izango da ordaindu gabeko ikasketa-lizentzien eskaerak aurkezteko epea.

### **Bosgarrena.- Bateriaezintasunak.**

Lizentziaren aldian ezin izango dira ordaindutako jarduerak egin eta lizentziaren helburuari eskaintzen zaion dedikazioa eskusiboa dela interpretatuko da.

**Seigarrena.- Dokumentazioa derrigorrean aurkeztu behar izatea.**

1.- Ikasketa-lizentziaren aldian, 2018ko abendura arte egindako proiektuari buruzko txosten bat edo ikasketak egiten diren ikastegian matrikulatuta egotearen egiaztagiria aurkeztu beharko diote, 2018ko abenduan, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzari onuradunek.

2.-Ikasketa-lizentziaren aldiak bukatzean eta luza ezin daitekeen hilabeteko epean, egindako ikasketen ziurtagiria edo ikerketa-proiektuaren memoria globala aurkeztu beharko diote Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzari onuradunek.

**ERREKURTSOAK**

Gorako errekurtsoa jarri ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari administrazio-bideari amaiera ematen ez dion ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita eta urriaren 1eko 39/2015 legeak, Administrazio Publikoetako Administrazio Prozedura Erkidearenak, 112.1. 121. eta ondorengo artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko ekainaren 1a



JON AGIRRE HUERGA  
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

HEZKUNTZA SAILA  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN